

## 2017ko eguzki/kilometroak kanpaina laukien komentarioak

### BAKEA MUNDUAN

1etik seietera : Bake keinuak

**1** Egun on indieraz : erran “Namaste” eskuak emanik otoitzeko bezala loturik eta apaldu burua.

**2** “agur” frantses zeinu-hizkuntzan. Esku eskuina ba doa kopetatik eskuin aldera.

**3** “amerikar agurra” : “hug” erranez, besarkada bizkor bat eman, edo eskuineko eskua luza parekoari, begi begira so eginez.

**4** “Milesker” frantses zeinu-hizkuntzan. Esku eskuina kokotsetik abiatzen da aitzinera.

**5** “Tibeteko agurra” erran lehenik : taxi dailai, eta mihia kanpora atera.

**6** “Barka” frantses zeinu-hizkuntzan : luza esku ahurrak bata bestearen gainean eta mugitu borobilak eginez.

**7** Martin Luther Kingen ametsa : egun batez mutiko eta neska beltzek xuriei esku emanen dietela, denak haurride direla erakusteko.

**9** atzeman nola erraiten den Bakea hitza beste hainbat hizkuntzetan.

**10** Adituen arabera ba litezke gaur egun munduan 250 000 (berrehun eta berrogeitamar mila) haur soldado izaitera bortxatuak.

**12** “haurraren nazioarteko hitzarmenak” (1989) hauxe dio : haur bakoitzak hartze du bere familian handitzea, konprenimendu eta maitasun giroan.

**13** 2004ean bake Nobel saria ukan duen Wangari Maathaiek egin zuen hori. Horrela Kenyako emazteentzat enpleguak sortu ditu, emazteen estimua jendartean baloratu du.

**BAKEA ESKOLAN (14 – 22 laukiak)**

**14** antzestu : Remik nola bere lagunak beldurtzen dituen kanpoko tenoretan. Bat batean arrunt herabea den Zook Remi pusatzen du. Antzestu zer pasatzen den orduan !

**16** « Printze Txikia » Antoine de Saint Exuperyk idatzia da.

**17** Antzestu : mobilom batean bizi da Marie bere familiarekin. Eskolan batzuek so berezi bat egiten diote. Zergatik ? zer egin daiteke Marie-rentzat ?

**18** Bikoteka eman zaitezte. Batek marrazten duena besteak asmatzen eta deneri aurkezten du. Hara asmatzaileak ikusi gabe marrazleari eman behar zaizkion hitzak : usoa, argia, oliba hostoa, pottak, esku emaita.

**19** Borroka gertatzen da haurrak kanpoko tenorean direlarik. Pasa hire aldia !

**21** gelako ordezkaria zara, giro ona bilatzen duzu ikasleen artean.

**22** denak biltzen dira ekipoka. Ekipo bakoitzak olerkari bat izendatzen du, Nazim Hikmet olerkari turkiarraren bake poemako bertsuak goraki erraiteko.

## BAKEA AUZOAN

**23** : Abbé Pierre apezak sortu zuen Emmaus mugimendua 1954eko neguko hotz handi hartan. Deus-gabeak laguntzeko eta miseriari buru egiteko. Mugimendu horrek maiz aterbe gabeak (sdfak) laguntzen ditu aterbe baten bilatzen.

**24** lotu erligioari doakion ikurra.

**25** Zketxa hau antzestu : bere urtebetetzearen kari Mélanie-k Florent eta Aliz bere lagunak gomiatu nahi ditu. Ordea elkarren artean hizkaturik kexatuak dira. Pentsa eta antzestu Mélanie-k nola ekarraraz ditzakeen !

**27** Asmatu lema bat hitz hauekin : auzoen arteko besta, karrika, partekatu, elkarrekin, laguntasuna, atsaldeko askaria.....

**28** Adineko bati zerbitzu bat egin diozu. Ba dakizu elkartasuna zer den.

**30** Oinbide edo espaloian zure txirrindolarekin leku guztia hartzen duzu !

**31** AMAP elkartek zer proposatzen dute ote ?

a) eskalapoinak oinetan emaiteko.

b) Engaiamendu bat laboraria eta kontsumitzailea lotzen dituen, bataren ekoizpena besteak erosiko du

d) Biziki kario saltzea laborari ekoizpenak sasoz kanpo.

**32** Ba zoaz lagunekin zure karrikaren garbiketara parte hartzera.

## BAKEA FAMILIAN

**34** Idatzi/goraki erran/Marrazkitu zure familiako norbaitentzat bake-mezu bat.

**35** antzestu : xorakeria bat egin duelako burrasoek Enzo erasiatzen dute. Asarre gorrian kanpora doa, atea bortizki jorik. Nolako eran itzultzen da burrasoen aitzinera ?

**36** parte hartzen duzu eguneroko bizian.

**37** gomitak zure etxera sartu eta berehala telebistaren aitzinera itzultzen zara.

**38** usaian beti bakean bizi naiz, hona hiru gisa :

- 1) Etxean egoiten naiz eta inor ez dut kexarazten.
- 2) Inoiz ez dut nire ikusmoldea emaiten.
- 3) Besteen ikusmoldea errespetatzen dut.

**39** etxean ura gastatzen duzu, ez duzu kasu egiten zenbat aldiz xurruta irekitzen duzun eta zenbat erausten duzun. Mundu honetan miliar bat jende bizi da edateko urik gabe.

**40** 2012an 215 (berrehun eta hamabost) milioi haur lanean ari dira, erdiak behartuak dira aritzera gehienetan beren osasunaren galtzeko zorian. Etika Etiketan lema plazaratu duten elkartek eskatzen diete lantegiei, giza eskubideak errespetatu ditzaten lanean.

**42** Biba zuek !!! bakearen eraikitzen parte hartu duzue elkarrekin. Elkarrekin mugitu zarete, zuen indarrak batu dituzue, eta hori jakin erazi duzue ! Orduan segi beti hola, bakea eraikitzen zuen inguruan !